

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Benito Etxabe Etxabe

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1928-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Artadi auzoko Gorostiagaundi baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti. Emaztea ere auzune berekoa du. Baserriko lanetan aritu izan da. Umea zela, Artadi auzoan organo-jotzailea behar zenez, auzoko baserritar guztien artean musika-eskolak ordaindu zizkioten. Artadi auzoko elizan ikasi zuen musika eta organoa jotzen Zumaiaiko irakasle batekin. Lehenengo irakaslea Nemesio Etxaniz izan zuen. Benito izan da Artadi auzoko organo-jotzailea 60 urtez. Oikian eta Urdanetan ere jo izan du. Angulak harrapatzen ere nabarmendu da.

Zintak

ZUM-012

- **Proiektua:** Zumaiaiko hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-11-02
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-030

- **Proiektua:** Zumaiaiko toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. Lehen, etxean jaiotzen ziren

- **Erref:** ZUM-012/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Baserrian bertan (Gorostiagan) jaio zen, baita bere bost seme-alaba ere. Lehen ez zegoen aurrerapenik eta etxean jaiotzen ziren. Bere semeetako bat medikua etorri orduko jaio omen zen.

2. Gorostiaga baserriak

- **Erref:** ZUM-012/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

6 baserri omen daude Gorostiaga izenekoak. Bakoitzari nola deitzen dioten. Bere emaztea Juantonenekoa da. Kaskante baserrikoak ere senideak dituzte. Gorostiaga baserri guztiak jabe bakarrarenak ziren. Kanpotarra zen jabe; haren inguruko azalpenak. Baserriaren errenta dirutan ordaintzen zuten nagusiarengana joanda.

3. San Migelgo eskola

- **Erref:** ZUM-012/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara San Migelera joaten ziren. Bere alabak ere hor ibili ziren. Eskola izandako eraikina zein zen. Inguruko ume guztiak bertan biltzen ziren eta hogeitik gora izaten ziren guztira. Lehenbizi apaiza izan zuen irakasle eta komunio txikia ere harekin egin zuen. Gero don Joakin etorri zen. Gerra baino lehentxeago diputazioak eskola jarri zuen eta bertara joaten ziren inguruko ume guztiak. Oinarrizko kontuak ikasten zituzten 14 urtera bitartean.

Transkripzioa

- Eta... eta zu orduan txikitatik Gorostiagan beti bizi...
- Bai, bai.
- Eta eskolara ta nora juten ziñaten?
- San Migela.
- Bertan zan, eskola bertan zan.
- Hoixe. Oain dao, hantxe dao, oaindio hor ziok.
- Taberna-ta ta...
- Ez, ez, ez. Sarreran exkerreta nola dao zea [...], hua eskola dek, bere eskuduakin ta zeakin ta dana. Hor, hor daon, hogeitaka... hori in zanian, hogeitaka lagun [eukitzen] zituen eskolan.
- Bai, e?
- Hamasei baserri ta dana, jende guztiya danak horrea etortzen hittuan ordun.
- Ume asko!
- Bai ba, danak. Ta gurian ´e, guk ´e, gurek baitta, gure alabak ´e hor ibili

dittun zean. Nik´e bost, ta gehienak hor ibili hittuan. Ta geo hor zeatu zanian, saldu zanian eo, batzuk alde in ziyen [...] ta karo, hor ziok geldiuta...

- Eta...

- ...oain bota in behar duela ta.

- ...noiz ein zian eskolak? Zuen denporan?

- Bai!

- Errepublikan, o?

- Bai. Ni lehenengo, apaiza huan zea, [...], nola zan zea? Famatu hua... Akordatu [...] batian!

- Ba, bardin da.

- Ta haekin hasi nun eskolan ta komuniyo txikiya´re bai, haekin. Ta geo, etorri huan Don Joakin, ta hua han ai giñala ein ziyen zea, eskola hori, Diputaziyuak in zin.

- Justo gerra baiño lehentxuo, ez?

- Bai, bai... Ez! Bai, gerra baiño lehen, bai, izango zan, bai.

- Treinta y cinco, o...

- Bai, gerra baiño lehen, gerra baiño lehen, bai.

- Eta ordun, bertako ume guztiyak eta bertara.

- Danak, hoixe, hogeita gehio. Zea danetan zan bost-sei seme-alaba, baserri danetan.

- Baserri bakoitzian. Eta ze ikasten zan? Ordun, e, ze ikasten zan?

- Ze ikasi huan hamalau urte arte? Hamalau urtekin, fuera!

- Sumar ta...

- Sumar ta restar ta multiplicar ta dividir ta...

- Lau operaziyuak eta...

- Geo hortik gorakoik...

- Irakurtzen ta...

- Bai. Raiz cuadrada ta zea ta hoiek´e jardutzen giñun ikasten, baiña...

- Eta idazten, eskribitzen?

- E?

- Eskribitzen ta?

- Hortxe eskribitzen, esan dizut, bai.

- Eta, gustora joten ziñan eskolara?

- Danak! Ze erremeio!

- Edo nahio baserriyan egotia?

4. Apaizen eraginez hasi zen musika kontuetan

- **Erref:** ZUM-012/006
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Komunio handia don Joakin Dorronsoro apaizarekin egin zuten. Komunio handira don Nemesio Etxaniz etorri zen. Hark ume guztiak musika ikasten jarri zituen. Alkate karlista jari zenean, bota egin zuten don Nemesio, nazionalista zelako. Horren ostean don Inazio Goikoetxea etorri zen eta harekin hasi ziren musika kontuak lantzen. Don Angelengana joaten zen Zumaiara musika

ikastera; baserritar guztien artean ordaintzen zituzten bere klaseak. Handik aurrerakoak bere kasa ikasi zituen.

Transkripzioa

- Eta musika kontuak eta, organo kontuak, nola, nola hasi zintzen? - Ba hor, zein, etorri huan Don Joakin Dorronsoro, zea huan, aurreko apaiza zea, zaharra hil zanian, geo ordun etorri zuen hua. Ta geo hark ere urte batzutan kumuniyo haundiya harkin in gintzen. Ta geo ordun, komuniyo haundin zea hortan etorri huan Don Nemesio Etxaniz. Ta hark berriz jarri zizkin umientzako ziniak han zein, azpiyan. Ta musika ta hasi ta jende guztiya musika ikastea ta bea, zea, famatua [...], ba, kantua ta musika ta zea [amorratua] ta. Ta geo bota in zien. Orduan hemen [gure auzoko etxea etorri] karlistak eta, [aurretik] alkate zeona karlista, ta abade zea hau; - Nazionalista. - Hau nazionalista ta; Zeoze esan zula ta fuera bota zuen. Ta akordatzan nauk arratsalden, bezperata jun ta zenbat jende zan han, despedida eman zunian. Danak ondo hartu zuen hua, Don Nemesio, ta. - Bai? Don Nemesio? - Bai. - Nungua zan bea? - Debakua. - Debakua. - Debakua, bai. - Ta hiru; Gai; ea itxia berritu in zin, zea, ta hiru anai-eo etortzen hitun horrea, ta bat Basakartekuakin ezkondata ta. Ez, bi anaie Basakartekuekin ezkondata zaben. - Eta, orduan, Nemesio Etxaniz izan zan, Don Nemesio, hamen musika kontua ta berak jarri zun martxan? - Bai, bai. Geo hua bialdu zien ta, ordun, hua zeatu zanian, Don Nemesio o zea sartu huan; Don Inazio zea; Dios, hau... buru hau! Goikoetxea! - Goikoetxea. - Mendaroneko zea hori. Ta horrek, ba, orduan [;] ba, ikasi in behar zala o zeoze. Batenbat zea; - Musika. - Musika zea, ta. Haekin hasi gintzen zeoze zeatzen ta, kantatzen ta, tonua eman ta, zein ta kantuan ta. Bai; o hua zeatu zanian; - Orduan zu zure; - Geo; horrela hasi zintzen? - Bueno, seitu in behar zala ta, Don zea horrek, Don I; aziok baserritar danakin o zeatu zian ta. Nei zeak, gastuak paatzeko hillian bost duro zer izaten zan zein. Ni Zumaira juten ni; un, zea, Don Angelena, zea, musika zeatzea, ta. Handik aurrekuak, berriz, ba!, pixkat; - Jardun ta; [;] laga nitxion harei ta, geo neure kasa. - Eta ordun klasiak, Zumaiko klasiak eta, baserritar guztien artian pagatzen zian? - Bai. - Zure klasiak. - Bai. - Ta holan ikasi zendun. - Bai. Bai, solfeua zeatu bittartian. Ta geo, geo solfeua ikasi nunian, ba, neure kasa hasi ta; - Eta oai; arte.

5. Zumaiko elizara organoarekin ensaiatzera

- **Erref:** ZUM-012/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gerora bera ibili zen ingurukoak zuzentzen denen artean abesti bat abesteko. Gabon gauean abestu zuten San Migelen gaueko hamabietan.

Zumaiako elizara joan behar izaten zen ensaiatzera, baita eguraldi txarra zenean ere. Eugenio izeneko batek (tenorra) abesten zituen abesti nagusiak elizan.</p>

Transkripzioa

<p>- Geo "Te Deum Laudamus" ta hori zeatu giñun. Ta kuadrilla zeakua, hamenguak eta auzokuk eta danan artian "Te Deum Laudamus" zeatzen giñun, zeatu giñun. Ta neuk, iñorrek ez zian […], ta neuk dirigittu noiz sartu behar zuen batek eta bestiak eta zea ta. </p>

<p>- Eta kantau. </p>

<p>- Bai. Ta kantau giñun gabon egun batian gaueko hamabittan. Ta jendia… </p>

<p>- Asko?</p>

<p>- Orduan ez zan [kamiyoik] eta zeaik ezer´e, baiña jende asko. </p>

<p>- Baiña hemen, San Migelen? </p>

<p>- San Migelen, Don Nemesio zeola. </p>

<p>- Eta organua noiz joten zan? Noiz joten zenun organua, jaietan, jai-egunetan, o? </p>

<p>- Jaietan. Ta geo gu hemendik zea ikastea, elurretan igual zean, neguan, eta eliza jun ta zea, ensaiatzeara, "Te Deum Laudamus" ta zea, […]. Ta […] anaia bakarrik segitzen dik hor zean, [oain laga zio], Eugenio. Badakik zein dan? </p>

<p>- Ez. </p>

<p>- Eugenio, hua tenorra o, ona huan. Ta majiña bat urtian, oain erretirau dek, baiño ya zean, kantatzen zin zeako, parrokiko, meza zea haunditan, zeatan, solua askotan kantatzen zin. Baiña oain laga zitxion.</p>

6. Oikiara eta Urdanetara organoa jotzera

- **Erref:** ZUM-012/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Gaur egun San Migelen bakarrik jotzen du organoa, baina sasoi batean inguru guztian ibiltzen zen, batez ere, Oikian eta Urdanetan. Oinez joaten zen auzo hauetara. Hogeiauro ematen zizkioten eguneko.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta oaindik´e jotzen dezu?</p>

<p>- Ze erremeio! Ze ingo diou ba! Ahal dan moun. Oain zea, diferente jo! Oain bakarrik koruan!</p>

<p>- Baiña nun jotzen dezu oin? San Migelen.</p>

<p>- Bai. Oain bakar-bakarrik. Nik lehen, hemezortzi urte nittunian Oikira, Urdaneta. Oikiyan, Don Nemesio zeonian, jai haunditan ta hara "Te Deum Laudamus" [… hoi] kantatzea ta Oikira askotan. Ta entierrotan, berriz, urte pilluan. Ta Urdaneta´re bai. Hara oiñez, e!,

hemendikan, e!</p>
 <p>- Oiñez, e? Aiara.</p>
 <p>- Egualdi ona bazan… E?</p>
 <p>- Aiara.</p>
 <p>- Aia? Urdaneta lehenuo zio!</p>
 <p>- Bai, baiña Aiako partia.</p>
 <p>- Aiako partia, bai.</p>
 <p>- Aiako partia.</p>
 <p>- Ta neu batzutan hemendikan ta ze egualdi zan, trenea, estaziyoa jun, trena, Zarautza jun ta handikan, zeatik barrena, bire hobia handikan. Ta eguna hogei duro ematen zien ta…</p>
 <p>- A, bai? Pagatu iten zan.</p>
 <p>- Hoixe! Bai, bai. Ta hara juten nitxanian, ba, zea, apaizak beak ematen zian bazkaia’re, ta…</p>
 <p>- Eta…</p>
 <p>- Oikiyan […]. Oikiyan´e urte pilluan, jai haundittan´e bai ta entierrotan, ni. Geo beste hau hasi zan arte, urte mordoxkan seittu nun bakarrikan.</p>

7. Eskolatik irten eta organoa ikastera

- **Erref:** ZUM-012/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>12-14 urterekin hasi zen musika ikasten. Eskolatik irten eta irakaslearen etxera joaten zen. Sarritan gogo gutxi izan arren, ikasi egin zuen. Umeen artean bera aukeratu zuten organoa jotzeko, norbait behar zela eta.</p>

Transkripzioa

- Eta horrela, hutsetik, hain... hamabi hamalau urtekin hasiko ziñan ikasten, ez?

- Bai, hamabi, hamar. Eskolan nabillen arte hasi giñun musika zeatzen ta eskolatik ertendakuan hara, zea [...], Pagola aldea. Han bizi huan zea, organista, eta hara. Ondo zio.

- Eta erreza al zan?

- E?

- Erreza? Edo asko kostata, edo?

- Askotan gogo haundiik´pe bai majiña bat aldiz!

- Eta etxian, aittak eta amak eta, ze esaten zuen?

- Ze esango [...], ezer ez aitte!

- Baiña nahi zuen?

- Hoixe!

- Nahi zuen zuk...

- Hoixen, hoixen nahi zuela! Baten bat behar zala ta ordun jende asko zitxion ta mezan kantatzeko ta zeatzeko ta.

- Ba, ume guztien artian zu hartu izan...

- Bai, ba! Ordun zeatzeko basarritarra o zeatzeko ta, ni nitxion zeatzeko moun, zea, maiorazgo bezela bertan segitzeko...

- Karo.

- ... noronor, ta ni zeatu behar. Beste batzuk...
- Zu aukeratu.
- ... kanpoa jun behar zianak haiek [...] zean? Ez, haiek ezin sartu.
- Eta horreatik sartu ziñan zu, orduan, maiorazgua ziñala.
- Bai. Hoixen, maiorazgua nitxalako.

8. San Migelgo parrokia; sepulturak baserri bakoitzarentzat

- **Erref:** ZUM-012/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>San Migelekoa parrokia da eta hiletak ere bertan egiten dira, auzoan kanposantua ere badute eta. Lehenago, aulkiak zeuden garaian, baserri bakoitzak bere zatia zuen elizan. Aulkien erabilera. Urte barruan hildakoren bat izanez gero familian sepultura gainean argizaiola eta trapua jartzen ziren. Sepulturen inguruko azalpenak.</p>

9. Angulatan txaluparekin eta bahearekin

- **Erref:** ZUM-012/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

<p>Mutikotatik ibili izan da angulatan. Boladak egoten omen dira, urte batzutan angula asko eta hurrengoan gutxi. Bera txaluparekin eta bahearekin ibiltzen zen angulatan. Angulatan nola egiten den.</p>

Transkripzioa

- Beste kontutxo bat. Hamen, angulatan ta asko ingo zan, ez? Hamen inguruan.
- Bai, hoixen.
- Zu're ibili zea?
- Ibiliko ez niñun, ba!, angulatan, mutil koxkorretatik hasitta.
- A, bai, e?
- Ahal deun arte, ezin deun arte.
- Asko harrapatzen zan hemen?
- Bai, asko. Bolara, urte batzutan zeon... Bolara izaten huan, hiru-lau urtian behetik gora, ta geo berriz'e atzea goittik behera ta, berriz'e gora ta berriz'e behera ta... Zea, alderdi haundiya, beti igual ez. Ta oain, zeak, kriston... Jun dan urtian ta ziharo, tope beheraiño. Iya bate ez dala harrapatzen, esaten zuen. Ta aurreko zeatan, berriz, angula pillua.
- Eta zu nola, nola aritzen ziñan? Txalupakin eo bahiakin o?

- Txalupakin. Txalupakin ta baheakin. Bueno, eskuz. Motorrik gabe.

- Eta nola iten da?

- Sartu hola ta ra!, atea, ta blat!, hustu, ta ra! sartu ta atea ta hustu ta. Bat baldin badao´re hustu in behar. Ta bate ez baldin bada, atzea.

- Atzeaka.

- Atzea in behar.

- Baiña sekreturen bat izango du, ez? Beti, edo...

- Ez!

- ... erreka bazterrian edo erdi partian, o...

- Segun nun aplikatzen dan. Batzutan aplikatzen da leku askotan erdittik baldin badator angula, igual baztertu itten dek zean, une batzutan pleimaa zeatzen danian. Ta igual [...] ta bestian, korrientia gora baldin badaka, bazterretik gutxi. Pleimaan eo zeatzen danian ordun, zabaltzen danen ordun bazterrea.

- Bazterrea.

- Uain berriz, uain dana motorrakin hasi behetikan ta jata dana eskutik kentzen die! Iya bueltaka motorrak [...] ta jata bau! Bazterren daonak... Lehen kriston bazter [...] zeatzen nun zean ta hoiek hasi zianian, akabo, dana exkutatu in huan. Alperrik huan ta jutia ta. Hoiek erdiya zijuan angula lehenengo gaiñetik zijuana ta geo berriya zatorrena hondotikan berriz, ta. Dana eskutik kentzen.

10. Baserri bakoitzak angulatarako txalupa eta txalupa uzteko tokia zuen

- **Erref:** ZUM-012/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Baserri bakoitzak bere txalupa izaten zuen eta baita txalupa uzteko tokia ere. Oikian Ipiolakoek eta Souzkoek bakarrik zuten txanala, besteak bazterretik ibiltzen ziren arrantzan. Bedua eta San Migelekoak txaluparekin ibiltzen ziren eta bakoitzak bere tokia izaten zuen txalupa uzteko.

Transkripzioa

- Eta txalupa ta, baserri bakoitzak bere txalupa izaten zun? Eta txalupa uzteko toki bat ere bai.

- Bai. Zeure txalupa, zeure... danak beren zea.

- Oikiyan ta hemen San Migelen ta gehienak...

- Oikiyan gutxik eukitzen [...] Oikiyan. Ipiolakua ta [...tar] hoiek eta besteikan ez huan ibiltzen txanelakin.

- A ez? Bazterretik.

- Bazterretikan.

- Eta txanelakin hamen partekuak, San Migelekuak.

- Bedukuak eta San Migel ta, hemenguak danak. Hemengo sei basarritarrak danak beren txalupak.

- Eta nun lagatzen zian txalupak?

- Erriyo baztarrian, enbarauta.

- Danak batera?

- Zea, bakoitzak bere terreno parian edo Bedua alde hortan hor askotan guk hemen goraguan ta, segun hurrena nola huan. Bi estaka sartu ta lixto!, harekin enbarauta.
- Bi estaka sartu terrenuan ta...

11. Franco hil zen gauean 20 kilotik gora angula

- **Erref:** ZUM-012/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Angulatarako garaia; berak San Migeletan ere harrapatu izan ditu. Gaur egun asko galdu da angula. Berak gau batean (justu Franco hil zen gauean) 20 kilotik gora angula harrapatu zituen, ufalak egin ostean urak dena beherantza arrastatu zuenean. Angula gehiena Eibarko Txaltxa jatetxera saltzen zuten. Biberok.

Transkripzioa

- Eta noiz da garai ona? Ointxe izaten da, ez?
- Ba, San Migeletan ta, urte batzutan harrapatzen zan hor.
- Bai, e? Setienbrian?
- Bai, bai. San Migeletan harrapauta nitxiok egun batian presa ondoa jun ta bi kilo angula.
- Joño!
- Oain, oain gutxi dek.
- Galdu in da, ez?
- Beno, igual etorriko dek berriz´e, zeatu aldiya.
- Bai, laga ezkerro, ez?
- Nik gau batian hogeita gehio kilo angula harrapau nixkin.
- Bai?
- Bai. Baiña orduan banitxan angula zeona ta juten niñun presa ondoaiño ta eunero bi o hiru kilo angula harrapau. Ta geo etorri hittuan ujal haundiyak ta jota erriyuan zea guztiyak dana behera arrastau ziyen, zea aldea ta, Bedua aldetikan beherako zea hortan, hor ura zeatzen danian han, nunbaitt han gelditu ta, geo zean, hor uren argitzea [...], jata bazterrian [...] alde batea ta nahiz bestetikan [...]. Bai. Hartu ta ra! bat, ra-ra! bat, ...
- Harrittuta, ez?
- Berrogeita hamar bat o ziento bat igual kalada batzutan!
- Bai, e?
- Bai. Baiña halakuak gutxi.
- Normalian pare bat kilo, eo...
- Bai.
- Eta angulekin gero saldu iten zian?
- Hoixe!
- Nora, ba?
- Guk Eibarrea saltzen giñun gehiena.

- Eibarrea?
- Txaltxa, Saltxa o...
- Bai.
- Zea horrena.
- Restaurana.
- Bai. Restauran horta.
- Eta zuek eramanda, eo? Zuek hara jun ta han salduta?
- Ez! Beak eskatzen ziyen. Ta guk biberuan euki zea, angulak, ta beak eskatzen ziyen eamateko honenbeste kilo ta, bezperatikan, ta hartu, trenian jun ta eman ta.
- Bizirik gorde egun batzutan, ta...
- Bai, ba. Biberuan zeatzen.
- Ta biberua nun zenuten?
- Bat han behien, geo autopista... hauek puskatu zien ta. Hemen [...] beste bat, eta. Ura zeon tokiyan.
- Eta Xabierrek esan zian, Franco hil zan gabian [...]?
- Ordun, ordun nun, ba, manifestaziyuan erten ziala, lanak!
- Ordun izan zan?
- Bai. Ta aurreko bi egunetan ujal haundiya. Ta jun ta batez. Ta manifestaziyua erten Franco hil zan gauian danak.
- Orduan izan zan hogeik kilo harrapatu zenduna?
- Hogeita gehio kilo.

12. Barazkiak Eibarrera saltzen zituzten

- **Erref:** ZUM-012/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Baba, artoa, garia, tomateak... hartzen zituzten lehenago. Jeneroa Eibarrera saltzen zuten; lehenbizi astoarekin kalera eta gero trenez joaten ziren. Azpeitira ere joaten ziren saltzera.</p>

13. Uda partean erromerietara eta neguan zinera

- **Erref:** ZUM-012/018
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Inguruetako erromeriak: Meagan, Zumaian ♦ Arroa behean igandero egiten zen erromeria kantinan eta bazuten hara joateko joera. Neguan zinera joaten ziren. Amaia zinea zegoen Zumaian.

14. San Migelerako bidea Foru Aldundiak eta handik beherakoa baserritarrek egin

- **Erref:** ZUM-012/019
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gorostiaga baserri ingurutik Zumaiara joateko bidea. Behekaldeko baserrietakoak, marea behean zegoenean, harraldetik bueltan joaten ziren Zumaiara edo bestela Beduatik txanalean pasa behar. Beraiek San Migelera igo behar izaten zuten. San Migelera bidea nolakoa zen lehen. Garai hartan zegoen apaizak bultzatuta Foru Aldundiak egin zuen San Migelerainoko bidea eta beraiek, 6 baserritarren artean, handik beherakoa egin zuten. Nola egin zuten bidea. Mendi-bideak auzolanean konpontzen ziren lehenago eta udalak merienda ematen zien lanean aritu zirenei.

15. Ura eta argia etxean

- **Erref:** ZUM-012/020
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argia betidanik ezagutu izan du etxean. Ura lehenago depositutik hartzen zuten eta ganadua erriberara eraman behar izaten zuten egunero ura edatera. Gerora errekatik jasotzen dute ura motorrarekin, baina ez dago ur asko inguruan, udaran agortu egiten da. Urarekin izandako gorabeherak.

16. Lehenagoko paisaia: haritzak, pagoak eta arteak

- **Erref:** ZUM-012/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:39:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Bera gaztea zenean inguruan pagoak eta haritzak ziren nagusi. Pagoei adarrak mozten zitzaizkien su-egurretarako eta pago motzak egoten ziren. Gerora pinua landatu zen. Artea ere beti egon da inguruetan, baina haren egurra ez zen asko erabiltzen.

17. Emakumeak esnea saltzera; astoaren garrantzia

- **Erref:** ZUM-012/022

- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Inguruetako baserrietan ganadua izaten zen, esne-behiak, normalean. Esnea astoan hartuta egunero eramaten zuten kalera saltzera. Zenbaitek etxez etxe saltzen zuten arren, normalean plazan saltzen zuten esnea. Astoak non lotzen ziren. Emakumeen lana izaten zen hori normalean. Astoak garrantzitsuak ziren baserrian; beraiek bi asto onak beti izaten zituzten. Eibarrera saltzera joateko lehenbizi Zumaiara jaisten ziren.

18. Urtean pare bat txerri hazten zituzten

- **Erref:** ZUM-012/023
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:44:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Inguruko baserrietan ganadua izaten zuten, baina ardirik edo ahuntzik ez. Beraiek bazituzten ahuntzak, baina inguruetan bakarrak ziren. Txerria ere izaten zuten baserrian. Urtean pare bat txerri hiltzen zituzten eta gustura jaten zuten txerrikia.</p>

19. Dolarea zuten etxean; txakolina egiteko prozesua

- **Erref:** ZUM-012/024
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:44:05. **Bukatu:** 00:48:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Betidanik egin izan dute txakolina etxean. Orain semeak saltzeko egiten du txakolina, baina lehen etxerako lain egiten zuten. Lehenago txakolina egiteko dolarean txikitzen zen. Dolare automatikoa jarri zuten etxean eta inguruetako baserrietakoek euren etxean egiten zuten sagardoa. Mahatsa Pilarika inguruan biltzen da. Txakolina egiteko prozesua. Barrikak. Txakolina sartutakoan irekita uzten ziren barrikak denbora batez.</p>

20. Mahastien zainketa

- **Erref:** ZUM-012/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Mahastien zainketa. Neguan zotza moztu eta "amarrau" egin behar izaten da; udaberrian adarra datorrenean hamabostean sulfatoa eman eta udazkenean bildu. Mahatsaren gaitzak eta hauen inguruko azalpenak.

21. Inguruetan etxerako lain egiten zen sagardoa eta txakolina

- **Erref:** ZUM-012/026
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:49:55. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Inguruetan txakolina egiten zen, baina sagardoa gehiago. Hala ere, lehen etxerako lain egiten zuten denek. Dolarerik ez zutenak nola moldatzen ziren mahatsa txikitzeko.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com